

HIZKERAZ MESEDEZ (II)

Aurreko lantxoarekin Lezoko hizkerari buruzko kontuak azaltzeari ekin nion eta orduan hasitakoaren jarraipena da hemen datorrena. Oraingo honetan erakusleetan jarri dugu gure arreta.

ERAKUSLEAK

LEZO (Proposamena)

SINGULARRA

	1. Gradukoa	2. Gradukoa	3. Gradukoa
Absolutua	AU	OI	UA
Ergatiboa	ONEK	ORREK	AR(R)EK
Datiboa	ONEI/ONI	ORREI/ORRI	AR(R)EI/AR(R)I
Inesiboa	ONTAN ONENGAN*	ORTAN ORRENGAN	ARTAN AR(R)ENGAN*
	ONEN BAITAN	ORREN BAITAN	AR(R)EN BAITAN
Leku gen.	ONTAKO	ORTAKO	ARTAKO
Adlatibo s.	ONTA ONENGANA/ ONEANA	ORTA ORRENGANA/ ORREANA	ARTA AR(R)ENGANA/ AR(R)EANA*
Hurbiltze ad.	----	----	----
	----	----	----
Muga ad.	ONTAÑO ONENGANAÑO	ORTAÑO ORRENGANAÑO	ARTAÑO AR(R)ENGANAÑO*
Ablatiboa	ONTATIK(AN) ONENGANDIK(AN)	ORTATIK(AN) ORRENGANDIK(AN)	ARTATIK(AN) AR(R)ENGANDIK(AN)
Genitiboa		ORREN	AR(R)EN
Soziatiboa	ONEKIÑ	ORREKIÑ	AR(R)EKIÑ
Instrument.	ONTAZ	ORTAZ	ARTAZ
Motibatiboa	ONENGATIK	ORRENGATIK	AR(R)ENGATIK(AN)
Destinatiboa;			
Gen. gainean	ONENTZAT/ ONENTZAKO	ORRENTZAT/ ORRENTZAKO	AR(R)ENTZAT AR(R)ENTZAKO
Ines. g. er	ONTAKO	ORTAKO	ARTAKO
Adl. g. er	ONTAKO ONENGANAKO	ORTAKO ORRENGANAKO	ARTAKO AR(R)ENGANAKO*

ANITZA

	1. Gradukoa	2. Gradukoa	3. Gradukoa
Absoluta	OK (auek-a/obek)	OIK (oyek)	AIK (ayek)
Ergatiboa	OK (auek-a/obek)	OIK (oyek)	AIK (ayek)
Datiboa	OKI (auei-a/obei)	OIKI (Oyei)	AIKI (ayei)
Inesiboa	AUTAN/OTAN (auetan-a/obetan) OKENGAN (auengan-a/obengan) OKEN BAITAN (auen baitan-a /oben baitan)	OITAN (Oyetan) OIKENGAN (oyengan) OIKEN BAITAN (oyen baitan)	AITAN (ayetan) AIKENGAN* (ayengan) AIKEN BAITAN (ayen baitan)
Leku gen.	AUTAKO/OTAKO (auetako-a/obetako)	OITAKO (oyetako)	AITAKO (ayetako)
Adlatibo s.	AUTA/OTA (auea-a/obeta) OKENGANA (auengana-a /obengana)	OITA (oyeta) OIKENGANA (oyengana)	AITA (ayeta) AIKEGANA* (ayengana)
Hurbiltze ad.	----	----	----
Muga ad.	AUTAÑO/OTAÑO (aueaño-a/obetaño) OKENGANAÑO (auenganaño-a /obenganaño)	OITAÑO (oyetaño) OIKENGANAÑO (oyenganaño)	AITAÑO (ayetaño) AIKENGANAÑO* (ayenganaño)
Ablatioba	AUTATIK(AN) /OTATIK(AN) (aueatik (an)- a/obetatik(an)) OKENGANDIK(AN) (auengandik(an)- a/obengandik(an))	OITATIK(AN) (oyetatik(an)) OIKENGANDIK(AN) (oyengandik(an))	AITATIK(AN) (ayetatik(an)) AIKENGANDIK(AN)* (ayengandik(an))
Genitiboa	OKEN (auen-a/oben)	OIKEN (oyen)	AIKEN (ayen)
Soziatiboa	OKIÑ (auekiñ-a/obekiñ)	OIKIÑ (oyekiñ)	AIKIÑ(ayekiñ)
Instrument.	AUTAZ/OTAZ (auegaz-a/obegaz)	OITAZ (oyegaz)	AITAZ (ayegaz)
Motibatiboa	OKENGATIK (auengatik(an)- a/obengatik(an))	OIKENGATIK (oyengatik(an))	AIKENGATIK (ayengatik(an))

Destinatiboa;

Gen. g. er.	OKENTZAT/ OKENTZAKO (auentzat-a/obentzat)	OIKENTZAT/ OIKENTZAKO (oyentzat)	AIKENTZAT/ AIKENTZAKO (ayentzat)
Ines.g.er.	AUTAKO/OTAKO (auetako-a /obetako)	OITAKO (oyetako)	AITAKO (ayetako)
Adl. g. er.	AUTAKO/OTAKO (auetako- a/obetako)	OITAKO (oyetako)	AITAKO (ayetako)
	OKENGANAKO (auenganako- a/obenganako)	OIKENGANAKO (oyenganako)	AIKENGANAKO (ayenganako)

Oharrak:

Lehen lehenik esan dezadan, eta garbi esan gainera, hau dela belarria erne ibiliz eta zenbait grabaketa aztertu ondotik atera zaidan edo osatu dudan erakusle sistema, eta osatua izan den moduagatik beragatik puntu asko dituela ilun eta azterkizun gelditzen direnak gai honefari eskuak sartu nahi dituen edonork argi ditzan.

— Sistema bikoitzaz hitz egin dezakegula uste dut, ainitzari dagokionean bederen. Letra larriz adierazi ditudanak Lezoko berezko formatzat hartuko nituzke eta parentesi artean adierazi ditudanak berriz, berrixeagoak eta kanpoko eraginei zor dakizkiekenak iruditzen zaizkit. Berrixeagoak esaten dudanean, badaiteke Lezorentzat berriagoak izatea bainan euskararen diakronian zaharragoak izatea, begira bestela "AU" diptongo soildu gabeari, "AU" - "O", nahiz "OBEK" forma ere bazterrak nahastera etorri. Dena den, aberastasun haundia atzeman daiteke erakusleen munduan gure herri xaharrean.

— Leku kasuak deriztenetan bizidunekin erabiltzen den —GAN— osagaiak ere makina bat buru-hauste eragin dizkit, deklinabideko kasu batzutan garbiki ageri baita eta beste batzutan aldiz, ez da bere arrastorik. Azkenean, jartzea erabaki dut bainan ez da osoki fidagarria —GAN— horren agerpena, ez baitakit zenbaterainoko hedatzea duen deklinabideko osagai honek Lezoko hizkeran. Ziurra da ez dela beti edo kasu guzietan ageri.

— Hurbiltze adlatiboa da bestalde, erabat desagertzen zaiguna, bere ordainetan "ayekonta", "ayekorta", eta "ayekarta" bezalako formak agertzen zaizkigularik, adlatibo soilari dagozkionak gehienetan.

— ORRENGATIK formaren ondoan ORREGATIK ere ageri da bainan galdetzaile modura.

JOXE LUIX AGIRRETXE